



GRADUA: Industria Elektronikaren eta Automatikaren
Ingeniaritzako Gradua

GRADU AMAIERAKO LANA

***ARRABOLADUN MAHAI BATEN
FABRIKAZIOAREN PRODUKZIO LERROAREN
AUTOMATIZAZIOA***

Ikaslea: Aguirre Telleria, Iker

Zuzendaria: Alberdi Goitia, Mikel

Ikasturtea: 2018-2019

Data: Bilbon, 2019ko maiatzaren 5ean

LABURPENA

Gradu amaierako proiektu honetan arraboladun mahai baten fabrikazioa automatizatzeko eta prozesuaren optimizazioa deskribatzen da. Proiektu honen burutzea gaur egungo sektore industrialak dituen beharrengatik dago motibatua. Enpresa industrial txiki asko daude Euskadin gaur egun TALLERES ARECHAGA S.L.-ren modukoak eta merkatuan lehiakorrak izaten jarraitzeko produkzio lerroetan hobekuntzak burutu behar dituzte.

Proiektua gaur egungo produkzio lerroa aztertuz hasten da automatizazio posibilitate bat aurkitzeko. Azterketa amaitzean makinaren berrantolaketa optimoa burutzen da ondoren, sentore, aktuadore eta zinta garraiatzaileen aukeraketa burutzen da.

Aukeraketa amaitzean PLC programazioa burutu da STEP 7 softwarearekin. Programa hau erabiliz, fabrikazioan parte hartzen duten aktuadore eta sentore guztien kudeaketa eta aktibazioa burutzen da fabrikazio prozesu egokia bermatuz.

Programa amaitzean proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa aztertzen da eta azkenik, automatizaziotik lortu diren ondorioak azaltzen dira etorkizuneko hobekuntza posibleekin batera.

RESUMEN

En este proyecto de final de grado se muestra la automatización y optimización del proceso de fabricación de una mesa de rodillos. La motivación para el desarrollo de este proyecto viene dada debido a las necesidades del actual sector industrial. Hoy en día hay muchas empresas industriales en Euskadi como TALLERES ARECHAGA S.L. Este tipo de empresas necesitan mejorar sus líneas de producción para seguir siendo competitivas.

El proyecto comienza con el análisis de la línea de producción actual para poder encontrar una solución de automatización. Después del análisis, se ordenan las máquinas de forma óptima. Al acabar la reestructuración, se eligen los actuadores, sensores y cintas transportadoras.

Tras la elección de material se realiza la programación PLC utilizando el software STEP 7. Con el uso de este programa se supervisa el funcionamiento y la activación de todos los actuadores y sensores asegurando un proceso de fabricación adecuado.

Al acabar el programa se analiza la viabilidad económica del proyecto. Por último, se explican las conclusiones obtenidas de la automatización junto con las posibles futuras mejoras.

ABSTRACT

In this final degree project, the automation and optimization of the manufacturing process of a roller table is shown. The motivation to develop this project comes with the necessity's that the current industrial sector has. Nowadays, there are many industrial companies in Euskadi as TALLERES ARECHAGA S.L. Having said that, this must be the main reason why they need to improve their production lines to continue being competitive.

Firstly, the Project starts with de analysis of the old production line. Then, we must find an automation solution. After the analysis, the first step would be the restructuring of the machines optimally. The second step would be the election of the material like, actuators, sensors and conveyer belts.

Secondly, after the election of the material, we realized the PLC programming using the STEP 7 software. Using this program, the operation and activation of all the actuators and sensors is supervised, ensuring an adequate manufacturing process.

Finally, at the end of the programming, the economic viability of the project is analyzed. After doing that, we also explain the conclusions and the future improvements we have obtained developing these automatization project.

AURKIBIDEA

MEMORIA	1
SARRERA.....	1
TESTUINGURUA	1
LANAREN HELBURUAK ETA IRISMENA	2
LANAK DAKARTZAN ONURAK	2
LANERAKO ERABILITAKO METODOLOGIA.....	3
ENPRESAREN DESKRIBAPENA	3
FABRIKAZIO EREMUA	4
TAILERRAREN KUDEAKETA.....	7
SENTSOREEN ESPEZIFIKAZIOA.....	8
Presio sentsorea	8
Oinarri teorikoa.....	8
Aukera teknologiko posibleen azterketa.....	9
Ibiltarte amaierako sentsorea	10
Oinarri teorikoa.....	10
Aukera teknologiko posibleen azterketa.....	10
Ikusmen artifizialeko sentsorea	13
Oinarri teorikoa.....	13
Aukera teknologiko posibleen azterketa.....	16
AUTOMATIZAZIO SOLUZIOA.....	19
BESTE ELEMENTUAK.....	29
PROGRAMAZIOA	32
Fluxu diagrama	32
Aldagaiak.....	34
GRAPH.....	35
Zati sekuentziala	35
HMI	65
KRONOGRAMA	67
Proiektuaren faseak.....	67
1. Analisia.....	67
2. Ikerketa	68

3.	Garapena.....	68
4.	Memoria	69
	Gantt diagrama	70
	ALDERDI EKONOMIKOAK	71
	ONDORIOAK.....	75
	ETORKIZUNeko HOBEKUNTZA POSIBLEAK.....	75
	BIBLIOGRAFIA	76
	ERANSKINAK	78
1.	ARAUDI APLIKAGARRIA	78
2.	BALDINTZEN AGIRIA.....	79
2.1	BALDINTZA TEKNIKOAK.....	79
2.1.1	Materialen baldintzak	79
2.1.2	Giza baliabideak	79
2.1.3	Guzatu eta muntaketarako baldintzak	80
2.2	BALDINTZA EKONOMIKOAK.....	80
2.2.1	Fidantzak.....	80
2.2.2	Prezioen ezarpenak	80
2.2.3	Neurketa eta ordainketa prozedurak	81
2.3	BALDINTZA ADMINISTRATIBOAK	82
2.3.1	Kontratatik bete beharreko baldintzak	82
2.3.2	Proiektua jasotzerako baldintzak	82
3.	KOP.....	83
	Kontaktuzko programazioa.....	83
4.	Datasheet	107

IRUDIEN AURKIBIDEA

1.irudia.	Automatizazio piramidea	3
2.irudia.	Gaur egungo fabrikazio eremuaren goitiko bista	4
3.irudia.	Proposatutako fabrikazio eremuaren goitiko bista	7
4.irudia.	Galga luza-metrikoa	8
5.irudia.	FSR Arduino Interlink 406 konexioa	9
6.irudia.	Serie AccuProx sentsoarea.....	11

7.irudia.	Serie iProx sentsorea.....	12
8.irudia.	HS-LJ12A3-4-Z/BX sentsorea.....	12
9.irudia.	Ikusmen artifizialaren prozesua	13
10.irudia.	ADC bihurketa eskema digitala	14
11.irudia.	Seinale jarraituen bihurketa eskema.....	15
12.irudia.	IN-SIGHT LASER profilagailua	17
13.irudia.	IN-SIGHT LASER profilagailuaren funtzionamendu adibidea.....	18
14.irudia.	HMI kontrol eta datuen bistaratze aukera posibleak.....	18
15.irudia.	Fabrikazio eremuaren goitiko bista berria automatizatuta	19
16.irudia.	1. etaparen automatizazioaren krokisa	20
17.irudia.	2. etaparen automatizazioaren krokisa	21
18.irudia.	3. etaparen automatizazioaren krokisa	22
19.irudia.	4. eta 5. etapen automatizazioaren krokisa.....	23
20.irudia.	6. etaparen automatizazioaren krokisa	24
21.irudia.	7. eta 8. etapen automatizazioaren krokisa.....	25
22.irudia.	9. etaparen automatizazioaren krokisa	26
23.irudia.	10. etaparen automatizazioaren krokisa	27
24.irudia.	11. eta 12. etapen automatizazioaren krokisa.....	28
25.irudia.	Gura-90378349 zinta garraiatzailea	29
26.irudia.	CP96-C zilindroa.....	30
27.irudia.	CP96-C zilindroaren funtzionamendu eskema.....	30
28.irudia.	CPI-42533C-120 soinu alarma.....	31
29.irudia.	Fluxu diagrama.....	32
30.irudia.	Programazio aldagaiak 1	34
31.irudia.	Programazio aldagaiak 2	34
32.irudia.	Programazioa aldagaiak 3	35
33.irudia.	Grafcet nagusiaren programazioa.....	35
34.irudia.	Grafcet nagusiaren azalpena.....	36
35.irudia.	Hasierako baldintzak orokorraren programazioa	37
36.irudia.	Hasierako baldintzak orokorra sinplifikatua	38
37.irudia.	Hasierako baldintzak torneaketaren programazioa	39
38.irudia.	Hasierako baldintzak torneaketa azalpena 1	39

39.irudia.	Hasierako baldintzak torneaketa azalpena 2	40
40.irudia.	Hasierako baldintzak torneaketa azalpena 3	41
41.irudia.	Hasierako baldintzak fresaketaren programazioa	42
42.irudia.	Hasierako baldintzak fresaketaren azalpena 1	43
43.irudia.	Hasierako baldintzak fresaketaren azalpena 2	44
44.irudia.	Hasierako baldintzak mandrinaketaren programazioa	45
45.irudia.	Hasierako baldintzak mandrinaketaren azalpena 1	45
46.irudia.	Hasierako baldintzak mandrinaketaren azalpena 2	46
47.irudia.	T9 torneaketaren programazioa.....	47
48.irudia.	T9 torneaketaren azalpena.....	48
49.irudia.	T5 torneaketaren programazioa.....	49
50.irudia.	T5 torneaketaren azalpena.....	50
51.irudia.	T3 torneaketaren programazioa.....	51
52.irudia.	T3 torneaketaren azalpena.....	52
53.irudia.	T2 torneaketaren programazioa.....	53
54.irudia.	T2 torneaketaren azalpena.....	54
55.irudia.	F2 fresaketaren programazioa	55
56.irudia.	F2 fresaketaren azalpena	56
57.irudia.	F1 fresaketaren programazioa	57
58.irudia.	F1 fresaketaren azalpena	58
59.irudia.	M4 mandrinaketaren programazioa	59
60.irudia.	M4 mandrinaketaren azalpena	60
61.irudia.	M2 mandrinaketaren programazioa	61
62.irudia.	M2 mandrinaketaren azalpena	62
63.irudia.	M1 mandrinaketaren programazioa	63
64.irudia.	M1 mandrinaketaren azalpena	64
65.irudia.	Torneaketaren prozesuaren HMIa.....	65
66.irudia.	Fresaketaren prozesuaren HMIa.....	66
67.irudia.	Mandrinaketaren HMIa.....	66
68.irudia.	Gantt diagrama	70
69.irudia.	KOP programazioa 1	83
70.irudia.	KOP programazioa 2.....	84

71.irudia.	KOP programazioa 3	85
72.irudia.	KOP programazioa 4	86
73.irudia.	KOP programazioa 5	86
74.irudia.	KOP programazioa 6	87
75.irudia.	KOP programazioa 7	87
76.irudia.	KOP programazioa 8	88
77.irudia.	KOP programazioa 9	89
78.irudia.	KOP programazioa 10	90
79.irudia.	KOP programazioa 11	91
80.irudia.	KOP programazioa 12	92
81.irudia.	KOP programazioa 13	93
82.irudia.	KOP programazioa 14	94
83.irudia.	KOP programazioa 15	95
84.irudia.	KOP programazioa 16	96
85.irudia.	KOP programazioa 17	97
86.irudia.	KOP programazioa 18	98
87.irudia.	KOP programazioa 19	99
88.irudia.	KOP programazioa 20	100
89.irudia.	KOP programazioa 21	101
90.irudia.	KOP programazioa 22	102
91.irudia.	KOP programazioa 23	103
92.irudia.	KOP programazioa 24	104
93.irudia.	KOP programazioa 25	104
94.irudia.	KOP programazioa 26	105
95.irudia.	KOP programazioa 27	106
96.irudia.	CPI-42533C-120 soinu alarma.....	107
97.irudia.	CP96-C zilindroa 1	108
98.irudia.	CP96-C zilindroa 2.....	109
99.irudia.	HS-LJ12A3-4-Z/BX sentsorea.....	110
100.irudia.	FSR Arduino Interlink 406 sentsorea.....	110

TAULEN AURKIBIDEA

1.taula:	FSR Arduino Interlink 406 funtzionamendu balioak.....	10
2.taula:	1.etaparen automatizazio elementuak	20
3.taula:	2. etaparen automatizazio elementuak.	21
4.taula:	3. etaparen automatizazio elementuak.	22
5.taula:	4. etaparen automatizazio elementuak.	23
6.taula:	5. etaparen automatizazio elementuak.	24
7.taula:	6. etaparen automatizazio elementuak.	24
8.taula:	7. etaparen automatizazio elementuak.	25
9.taula:	8. etaparen automatizazio elementuak.	26
10.taula:	9. etaparen automatizazio elementuak.	26
11.taula:	10. etaparen automatizazio elementuak.	27
12.taula:	11. etaparen automatizazio elementuak.	28
13.taula:	12. etaparen automatizazio elementuak.	29
14.taula:	Gura-90378349 zinta garraiatzailearen diseinu espezifikazioak.....	29
15.taula:	CP96-C zilindroaren diseinu espezifikazioak.	30
16.taula:	CPI-42533C-120-ren diseinu espezifikazioak.	31
17.taula:	Helburuen analisia.....	67
18.taula:	Lan eremuaren azterketa	67
19.taula:	Erreminten analisia.....	68
20.taula:	Prestakuntza formazioa	68
21.taula:	Fabrikazio lerro berriaren diseinua	68
22.taula:	Erreminten inplementazioa	68
23.taula:	Programazioa.....	69
24.taula:	Proiektuaren dokumentazioa	69
25.taula:	Zuzendariaren berrikusketa	69
26.taula:	Gradu amaierako lanaren Ordu kopuru totala	70
27.taula:	Gaur egungo fabrikazioaren makinaren lan orduen gastua.	71
28.taula:	Proposatutako fabrikazioan lan orduen gastua.....	72
29.taula:	Doikuntza tailerrean eginiko lanaren gastua.	72
30.taula:	Automatizazio materialaren prezioa.....	73
31.taula:	Automatizazio lanaren aurrekontua	74

MEMORIA

SARRERA

Gradu amaierako proiektu honen gauzatzea gaur egungo ondorio ekonomikoengatik dago motibatua. Mundu mailan dauden arazo ekonomikoek enpresen deszentralizazioa eragin dute eta honen ondorio nabarmena da langile askok lana galtzea. Guzti honegatik, enpresa askok berritzera eta urteko aurrekontuaren zati bat I+G (ikerketa eta garapena) erabiltzera behartuak izan dira.

Enpresek topatu duten soluziorik komenigarriena eta errealena produkzio lerroen automatizazioa izan da fabrikazio denborak txikitzeko.

Proiektu honetan mekanizazio tailer baten produkzio lerroaren automatizazioa topa daiteke arraboladun mahai baten fabrikazioan. Hau guztia tailerraren analisiarekin hasi eta arraboladun mahaiaren fabrikazioarekin amaitzen da.

TESTUINGURUA

Proiektua mekanizazio prozesuan oinarritu da, modu honetan makina ezberdinen erabilpen ordena, kokapena, lan denbora... ikusi eta aztertuz hobekuntza (prozesu automatizazio) bat eskaintzeko. Hobekuntzaren prestaketan teknologia berrien erabilpena eta kontrol sistema ezberdinen erabilgarritasuna kontutan hartu da lehen zegoen produkzio lerroa hobetu ahal izateko. Azkenik aukeratutako ekipo berrien programazioa azaldu da.

Proiektu hau TALLERES ARECHAGA S.L. tailerrean burututako praktiken eta lan denboraren emaitza da. Prozesuan praktikan ipini ahal izan ditut unibertsitatean lortutako ezagutzak enpresa industrial batentzat automatizazio prozesu erreal bat prestatuz.

LANAREN HELBURUAK ETA IRISMENA

Proiektuaren helburu nagusia produkzio lerroan hobekuntza bat eskaintzea da, modu honetan produkzioaren fabrikazio denbora optimizatuz.

Produkzio lerroaren hobekuntza lortzeko kontrolagailu ezberdinen inplementazioa burutuko da.

Helburu hau gauzatzeko arrabioladun mahaiak burutu beharreko bidearen azterketa sakon bat burutzen da jarraitu beharreko makina ezberdinen lan mota eta fabrikazio denbora zein den ikusiz.

Proiektu hau automatizazioaren inplementazio teorikora arte planteatu da instalazioa eta produkzio lerro berriaren inplementazioa kanpoan geldituz.

LANAK DAKARTZAN ONURAK

Lan honek produkzio denboraren murrizketa bat eskaintzen du fabrikazio prozesuaren prezioa murriztuz. Honetaz aparte, segurtasun neurrien hobekuntza eskaintzen du, alarma sistemaren inplementazioari ezker.

LANERAKO ERABILITAKO METODOLOGIA


ENPRESAREN DESKRIBAPENA

Mekanizazio tailer txiki batean baliabide ekonomikoak aztertzea oso garrantzitsua da baina eremu fisikoa baita ere. Hobekuntzak prestatzeko eta ergonomia gabeziak detektatzeko azterketa sakonago bat beharrezkoa da automatizazio aukerarik egokiena eskaintzeko.

Enpresa hau proiektu mekaniko ezberdinen fabrikazioaz eta muntaiaz arduratzen da, ondorioz, zuzenean dago lotuta enpresa handien ekonomiari, beraientzat lan egiten duelako.

TALLERES ARECHAGA S.L. da ACERINOX-en arraboladun mahaien fabrikazioaz eta muntaiaz arduratzen den enpresa. Fabrikazio honen barruan nire lana, fabrikazio prozesua analizatzea izan da, gaur egungo prozesuari automatizazio proposamen bat eskainiz. Proposatutako automatizazioa etorkizuneko proiektuetan erabilgarria izatea espero da.

TALLERES ARECHAGA S.L. orokorrean mekanizazio proiektu industrialen fabrikazioaz nahiz muntaiaz arduratzen da. Enpresak departamentu ezberdinez osatuta dago, adibidez, fabrikazio saila, doikuntza saila edo salmenten saila. Nire lana fabrikazio sailarekin lotuta egon da piezen fabrikaziorik eraginkorrena bilatuz.



1.irudia. Automatizazio piramidea

Fabrikazio saila irudian ikusten den planta maila barruan dago kokatuta automata eta makinaren programazioarekin zuzenean lotuta honen azpian makinak eta kontroladoreak bakarrik daudelako.

Automatizazio soluzioa lortzeko fabrikazio denbora jaitea bilatzen da. Helburu hau lortzeko teknologia berrien erabilpena beharrezkoa da eta ondorioz, ikerketa honen garapena Grafcet diagrama funtzionala erabiliz burutuko da.


Grafcet hau burutzeko merkatuaren azterketa burutu behar izan da sentzore, zilindro eta beste elementuak aukeratzeko. Elementu hauek erabiliz proposatutako automatizazio soluzioa aurkeztu da.

FABRIKAZIO EREMUA

Lehenengo azterketa amaitzean, lana burutzen den eremu fisikoak akatsik ez zuela erakutsi zuen. Lortutako beste emaitza izan zen, makinaren kokapena ez zela eraginkorra. Azterketa honen ondoren, errekurso fisiko eta materialen optimizazioaren berrikuspen sakon bat egitea beharrezkoa dela ikusi da.

Fabrikazio prozesurako beharrezkoak diren makinaren kokapen ez optimoagatik langileek alferrikako operazio errepikakorrak burutzeraz behartuta daude materiala zubi garabiarekin mugituz. Lanean, lantegiaren errekursoak era egokian erabiltzeari lehentasuna eman zaio produkzio lerroaren automatizazio barruan eta ondorioz, materialen transferentziak hobetu eta akzio fisiko errepikakorrak ezabatzea burutu da.

Azterketa honek islatu zuen datu nagusia, langileak produkzio lerroaren parte zela da eta proiektu honek bilatzen duena, langilearen lana produkzioaren kontrolarekin eraginkorragoa eta erosoagoa bihurtzea da.



2.irudia. Gaur egungo fabrikazio eremuaren goitiko bista

Fabrikazio eremuko makinaren sailkapen orokorra:

Tornuak:

- T1: GEMINIS GE-1800
- T2: GEMINIS GE-1400 S
- T3: GEMINIS GE-1000 S
- T4: GEMINIS GE-870
- T5: CAZENEUVE HB-725
- T6: BILZIA
- T7: COER D900
- T8: GEMINIS GE-650
- T9: GEMINIS G4-1600

Mandrinatzeko makinak:

- M1: KOLB Ø250
- M2: JUARISTI Ø110
- M4: TOS WHN 13AB Ø130

Fresatzeko makinak:

- F1: CORREA 20/53
- F2: CORREA F3UA

Doikuntza makinak:

- PU: Punteadora
- C1: URPE arrabotatzeko makina bertikala

Arraboladun mahaiaren fabrikazioa lau atal ezberdinetan banatuta dago: torneaketa, fresaketa, mandrinaketa eta doiketa lana hurrenez hurren.

- Torneaketa: prozesuaren lehenengo atalean materiala biltegitik jaso eta gehiengo materiala kentzen da lau torno ezberdin erabiliz beharren arabera.
- Fresaketa: bigarren atalean lortutako zilindro itxuradun materialari mekanizazio prismatikoaren ematen zaio zehaztasun gehiagorekin.
- Mandrinaketa: hirugarren atalean materialean bereizmen oneko zuloak burutzen dira gero doiketa tailerrean lan egiteko.
- Doikuntza lana: laugarren atalean lortutako materiala muntatzeaz eta doitzeaz arduratzen da proiektua amaitzeko.

Arraboladun mahaiaren fabrikazioa prozesu mekaniko ezberdinak ditu bere barnean lan ordu kopuru ezberdinarekin:

- Torneaketa (T9, T5, T3 eta T2).

T9	T5	T3	T2
222,50h	34,00h	244,50h	7,00h

- Fresaketa (F2 eta F1).

F2	F1
11,00h	86,00h


- Mandrinaketa (M4, M2 eta M1).

M4	M2	M1
59,50h	26,50h	351,50h

- Doikuntza lana (doikuntza tailerrean).

DL
472,00h

Lan orduak aztertuta era grafikoan posible da erakustea tailerreko makinaren erabilpena:



1.grafika. Fabrikazioaren lan orduen grafika orokorra


Proiektu honen kudeaketa planteatzeko unean, planta osoaren egitura optimoa naiz lan orduak aztertu dira, automatizaziorako egon daitezkeen beharrak aztertu dira. Azterketa hau **5S** metodo japoniarra erabiliz burutu da [1]:

- Antolakuntza: beharrezko ez diren gauzak baztertu.
- Ordena: beharrezko direnak kokatu.
- Garbitasuna: zikinkeria ezabatu.
- Estandarizazioa: anomaliak markatu.
- Diziplina: hobetzeari ekin etengabe.

TAILERRAREN KUDEAKETA

Lan orduak aztertuz, tailerrean arraboldadun mahaia fabrikatzeko beharrezko makinak kokapen ez optimoa ikusten da. Makinak 2. irudian ikusten den moduan ez daude era jarraituan konektaturik eta makinaz aldatzean denbora galerak daude.

Proiektu honetan zuzendu den lehenengo gauza makinak kokapen ez optimoa izan da, 3. irudikoa proposatuz:



3.irudia. Proposatutako fabrikazio eremuaren goitiko bista

Kudeaketa honetan bilatu den beste gauza bat enpresaren berritzea izan da produkzioa automatizatuz. Hau lortzeko zinta garraiatzaileak, sentsoreak eta geldialdi segurtasun sistema gehitu zaio prozesua segurtasunaz bermatzeko. Guzti hau kontrolatzeko Graficet grafiko funtzionala jarraitu da prozesua une oro era egokian funtzionatzen den ikuskatzeko.

SENTSOREEN ESPEZIFIKAZIOA

Sentsoreak aukeratzean sentsore erresistiboak eta induktiboak aukeratu dira produkzio lerroaren betebeharrak asetzeko:

- Sentsore erresistiboa: erresistentzia elektrikoaren balioa aldatu egiten da neurtu behar den magnitude fisikoaren arabera. [2]
- Sentsore induktiboak: material metalikoak detektatzeko balio dute. [3]

Presio sentsorea


Aukeratu den lehenengo sentsore mota erresistiboa presio sentsore bat izan da. Sentsore mota honen helburua zinta garraiatzaileetan kokatzea da piezaren posizioa zehazteko eta ondorioz zintaren mugimendua kontrolatzeko.

Oinarri teorikoa

Sentsore mota hau erantzun elektrikoak pisu aldaketa baten bidez jasateko dago diseinatua. Aldaketa hauek baskula batean ematen dira eta pisu balio hau aldi berean kontrolagailu edo monitoretza sistema batera bideratzen da.

Tresna hauek sistema elektromekanikoak dira deformazio mekanikoan oinarrituak. Deformazio honek aldi berean sentsorean instalaturik dagoen erresistentziaren fluxu elektrikoa aldatzen du.

Erresistentzia elektrikoa galga luza-metrikua bezala ere ezagutzen da eta bere egitura hurrengoa da: oinarri mehe ez eroale bat non bere gainean hari metaliko bat itzaten da. Hariaren erresistentzia elektrikoa zuzen proportzionala da bere luzerarekiko. Ondorioz, galgak jasaten dituen presio deformazioak bere harilaren luzeran eragina dute erresistentziaren balioa aldatuz[4].



4.irudia. Galga luza-metrikoa

Aukera teknologiko posibleen azterketa

Atal honetan, merkatuan dauden presio sentsore erresistiboen artean azterketa egin da.

Hari metalikodun galga luza-metrikoak

Sentsorea oinarri ez eroale eta elastiko batez osatuta dago. Honen gainean hari metalikoa kokatuta dago eta hariaren bi muturrak transdutorera loturik daude.


Galga luza-metriko erdieroaleak

Galgen itxura aurrekoen oso antzekoa da. Aldaketa aukeratutako harilean dago, non haria metalikoa izan behar erdieroalea den. Tamainari dagokionez txikiagoak dira galga mota hauek. Hari metalikoa dutenekin alderatuz zehaztasun txikiagoa dute.

Automatizazio honek ez duenez prezisio handia behar erdieroale bat aukeratuko da prezio lehiakorragoa duelako eta zinta garraiatzailean instalatzean neurtu nahi den pieza heldu den ala ez da[5].

FSR Arduino Interlink 406

Kontrol erraza duen sentsore erresistibo honen konexioa sarrera analogiko bat erabiliz burutzen da. Sentsore honen muntaia burutzeko 5v-ko tensio iturri bat beharrezko delarik.



5.irudia.

FSR Arduino Interlink 406 konexioa

Eskeman ikusten den moduan erresistentzia bat beharrezkoa da. $10\text{K}\Omega$ -ko erresistentzia aukeratu da sentsoreak dakarren FSR erresistentzia aldakorrarekin batera.

- Sentsoreak dakarren erresistentziaren lan esparrua $100\text{K}\Omega$ -tik (presio gabe) 200Ω (presioa izatean) da.

1.taula: FSR Arduino Interlink 406 funtzionamendu balioak

Indarra (N)	FSR erresistentzia	(FSR+R) erresistentziak	Korrontea	Tentsioa
100 N	$250\ \Omega$	$10.25\ \text{K}\Omega$	0.49 mA	4.9 V

Sentsore honek duen beste ezaugarri egoki bat bere dimentsioak da, zinta garraiatzailean instalatu ahal izateko pieza mugitu barik eta detekzioa 100N-eko pisu minimoan zehaztuz.[6].

Ibiltarte amaierako sentsorea

Aukeratu den lehenengo sentsore mota induktiboa ibiltarte amaierako sentsore bat izan da. Sentsore mota honen helburua makina bakoitzaren fabrikazioa noiz amaitzen den jakitea da aukeratutako eragingailua aktibatzeke eta pieza zinta garraiatzailerara gidatzeko dagokion zilindroa erabiliz[7].

Oinarri teorikoa

Sentsore hau seinale elektriko bat aurkezten du mugimendu mekaniko baten ondorioz. Bere egitura eragingailu bat eta kontaktu ezberdinez osatuta dago.

Funtzionamenduaren printzipioa: eragingailua erabiliz kontaktuetatik igarotzen den seinale elektrikoaren eten edo abiatu.

Aukera teknologiko posibleen azterketa

Merkatuan dauden sentsore induktiboen artean, ibiltarte amaierako sentsore desberdinen azterketa egin da atal honetan.

Serie AccuProx

Detekzio distantzia handiak, linealtasuna eta erresoluzio bikainak eskaintzen dituen detektorea da, zehaztasun handia behar duten aplikazioetarako.

Tenperatura oso altuak jasateko diseinu erresistentea du eta ingurugiro zikinetan lan egiteko aproposa da, zarata elektrikoaren aurkako immunitate handia du eta, gainera, bi koloretako LED adierazlea dauka bistaratze azkarra ahalbideratzeko.

Automatizazioan izango duen funtzioa aztertuta presio oso altua zuen bete behar diren beharrak aztertuz[8].



6.irudia. Serie AccuProx sentsorea

Serie iProx

Sentsore programagarriak direnez, oso moldagarriak dira aplikazio konplexuentzako. Ondorioz, detekzio distantzia programa daiteke. Gainera, banda, posizioa eta “hondo ezabapena” detekta daitezke.

Diseinu erresistentea dauka, kolpeak eta tenperatura altuak jasan ditzake eta zarata elektrikoarekiko erresistentea da.

Sentsore hauek NPN edo PNP moduan lan egin dezakete, eta bi koloretako LED adierazle bat dute bistaratze azkarra ahalbidentuz.

Sentsore garestia prozesuan bete behar duen funtzionamendua aztertuta[9].



7.irudia. Serie iProx sentsorea

HS-LJ12A3-4-Z/BX sentsorea

Sentsore mota hau aukeratu da tailerrean implementazio erraza duelako eta erraz kableagarria delako.

Erabilpen sinpleaz aparte ekonomikoki oso egokia da aurreko sentsoreekin alderatuta. Bere funtzioa mekanizazioa amaitu dela detektatzea da makina bakoitzean, ondorioz, bere detekzio esparrua nahikoa da funtzio honetarako (4mm).[10].

Konexioa burutzeko hiru haril ezberdin aurkitzen dira:

- Kable marroia: (6-36)V esparruko korrante zuzeneko tenstio iturri bati konektatzen zaio. Ondorioz, 6V-ko elikadura iturri bat erabili da.
- kable beltza: Irteera digitala da. Ondorioz PLC-aren sarrera digitalera konektatu da.
- Kable urdina: GND-ra konektatzen da.



8.irudia. HS-LJ12A3-4-Z/BX sentsorea.

Ikusmen artifizialeko sentsorea

Aukeratu den azken sentsore mota ikusmen artifizialeko sentsorea da. Sentsore mota honen helburua makina multzo bakoitzak (tornuak, fresatzeko makinak eta madrinatzeko makinak) mekanizazioa bukatzean prozesua ondo dagoen egiaztatzea da. Sentsore mota hau ez da ez erresistiboa, ezta inдукtiboa. Sentsore hauek kamera industrial barruan babestutako sentsore digitalak dira.

Makina multzo bakoitzak mekanizazio prozesu guztiz ezberdina duenez egokiena sentsore mota hau erabiltzea da.


Oinarri teorikoa

Ikusmen artifiziala, mundu errealeko irudiak bereganatu, prozesatu, analizatu eta ulertzeko metodoak erabiltzen dituen zientziaren disziplina bat da, irudi horiek ordenagailu bidez zenbaki edo seinu informazioan bihurtuz (CCD)[11].

- CCD (Charge – Coupled – Device): material erdi eroale fotosentikorretan oinarritzen diren kamerak dira. Ez da beharrezko ekorketa elektronikoa.

Ikusmen artifiziala duen sistema batek lau egoera ditu bere prozesu barruan:

- Pantailaratzea: objektu erreal baten argazkia lortu sentsore bat erabiliz.
- Digitalizazioa: Formatu digitalean bihurtu informazioa.
- Prozesaketa: Ordenagailu bat erabiliz informazioa aztertu.
- Analisia: Prozesuaren emaitzak lortu.



9.irudia. Ikusmen artifizialaren prozesua

Prozesuaren lau blokeen funtzionamendua[12]:


- Digitalizazio modulua: Kameratik lortutako bideo seinalea seinale digitalean eraldatu.
- Irudi memoria: Digitalizazio modulutik jasotako seinalea jaso eta bildu.
- Bistaratzeko modulua: memorian gordeta dagoen seinalea digitala hartu eta formatu analogikora eraldatu monitorean bistaratzeko.
- Irudi prozesadorea: Kamerak ateratako argazkiak prozesatzen ditu.

Digitalizazio moduluan gertatzen den prozesua hobeto azaltzeko ADC (Analog-digital converter) prozesuetan gertatzen den seinalearen atonketa:

ADC

Prozesu hau azaltzeko hiru etapa ezberdinetan dagoela banatuta esan behar da[13]:


- Seinale jarraituaren bihurketa denboran eta anplitudean.
- Seinale digitalaren prozesaketa.
- Prozesatutako seinale digitalaren bihurketa seinale zuzen batean.



10.irudia.

ADC bihurketa eskema digitala

- Seinale jarraituaren bihurketa denboran eta anplitudean:
 - ADC: neurri fisiko jarraitu bat neurriaren anplitudea irudikatzen duen zenbaki digital baten bihurtzen duen gailu bat da.



11.irudia. Seinale jarraituen bihurketa eskema

- Seinale jarraituaren bihurketa denbora eta anplitudean 14. irudian ikusten den moduan hiru azpiprozesuetan banatuta dago.
 - Laginketa: prozesuan periodikoko laginak hartzean oinarritzen da. Pulsu anplitude modulazioa (PAM) deritzo.
 - Kuantifikazioa: atal honetan informazioa galtzen da eta ezin da berreskuratu alderantzizkatze prozesu batekin.
 - Kodifikazioa: bere izenak esan bezala seinalea eraldatzea eta era bitarrean adierazten datza.
- Seinale digitalaren prozesaketa eta prozesatutako seinale digitalaren bihurketa seinale zuzen batean:
 - Etapa bi hauetan ADC-tik lortutako laginketak jaso prozesatzen dira (denbora errealean).
 - Prozesaketa digitala mikroprozesadoreak erabiliz burutzen da eta ondorioz lehen azaldutako laginketak eta laginketa abiadurak mikroprozesadorearen CPU-aren kapazitatearen menpekoak dira.

Aukera teknologiko posibleen azterketa

Merkatuan dauden ikusmen artifizialeko sentsoreen artean azterketa eta sailkapen bat egin da atal honetan.

Ikusmen artifizialeko sentsoreetan atal garrantzitsu bat kamera da. Kamera bidezko sailkapena burutu daiteke:

Linealak

Irudia lerroz lerro eraikitzen dute ekorketa eta luzeetarako desplazamendu bat burutuz

Kamera mota hauek 512-8192 pixel artean lan egiten duten sentsoreak erabiltzen dituzte irudi kalitate oso altua eskainiz. Lerro indibidualak erabiliz seinalea eraikitzeko prozesuak zehaztasun handia eskatzen du. Sistemaren sinkronismoa eta lerrokatzea kritikoak dira aztertu nahi den objektuaren irudi zehatz bat lortzeko. Kamera hauek dituzten ezaugarri nagusiak:

- Optikaren tamaina pixel kopuruarekiko zuzenki proportzionala da.
- Abiadura: Irakurri daitezkeen pixel kopurua denbora unitatearekiko. Kamera linealek, matrizialek baino abiadura handiagoa dute. Merkatuan dauden kamerak 200MHz baino balio altuagoak lor dezakete.

Matrizialak

Sentsoreak estaltzen duen esparrua pixel matrize batez osatuta dago. Gaur egungo kameraren sentsoreak CCD teknologiaz osatuta daude. Ezaugarri nagusiak:

- Betetzeko faktorea: Pixelaren azaleraren zein ehuneko den argiari sentikor. Idealtzat %100 balioa hartzen da.
- Transferentzia mota:
 - Lerro tarteko transferentzia: komunena da eta pixelen lerro tarteko erregistroak erabiltzen dituzte datuk gordetzeko eta bidaltzeko.
 - Lauki transferentzia: Argi biltegitratzerako espazio bat dute. Espazio hau area aktibotik banatuta dago obturazio abiadura galduz.
 - Lauki osoa: Arkitekturarik sinpleena da. Fotoien erakusketarako, kargaren integrazioarako eta kargaren garraiorako erregistro paralelo bat erabiltzen dute.[14]

IN-SIGHT LASER profilagailua

IN-SIGHT LASER profilagailua neurketarako Sistema bat da dimentsioen egiaztapenerako erabiltzen dena. IN-SIGHT LASER profilagailua In-Sight EasyBuilder erabiltzaile interfazearekin konfiguratu da.




12.irudia. IN-SIGHT LASER profilagailua

Hardware hau planta mailan zehaztasun handiko neurketak egiteko aukera ematen du emaitza CAD plano batean jasoz.

Gailu honen funtzionamendua instalazioa burutu ondoren 4 etapa ezberdinetan garatzen da:

1. Profila eskuratu: Profil optimizazio teknologiak zehaztasun handiko silueta lortzen du pieza fisikoa erabiliz.
2. Objektu posizioa: Objektu detekzio teknologiak neurketa posizio egokian burutu dela ziurtatzen du.
3. Neurketa: In-Sight laser profilagailuak ezaugarriak lortzen ditu erreferentzia puntuak ipiniz eta egiaztatzen du fabrikazioa tolerantzien barruan burutu dela zehazten du.
4. Komunikazio emaitzak: Behin emaitzak lortuta neurriak PLC edo ordenagailu batera bideratzeko aukera dago.

Konexioa burutzeko 24V-ko korrante zuzeneko elikadura iturri bat beharrezkoa da.



13.irudia. IN-SIGHT LASER profilagailuaren funtzionamendu adibidea

Gailu honek bistaratze aukera ezberdinak ditu HMI propio bat sortzen du erabiltzaileari tableta, ordenagailu edo mugikor baten bidez kontrolatzeko aukera emanez. [15]




14.irudia. HMI kontrol eta datuen bistaratze aukera posibleak

Automatizazio honetan IN-SIGHT LASER profilagailua langile batek kontrolatuko du ordenagailu propio bat erabiliz eta neurketa emaitzak egokiak ala okerrak diren baieztatuko ditu ART1, ART2 eta ART3 pultsagailuak erabiliz.

AUTOMATIZAZIO SOLUZIOA

Automatizazioa bi atal nagusitan banatu da: lantegiaren diseinu berria eta elementuen implementazioa. 15. irudian ikusten da aukeratutako zinta garraiatzaileak (gorriak eta beltzak), zilindroak eta sentsoreak implementatu ondoren. Lauki urdinak PLC-aren posizioa erakusten du.



15.irudia. Fabrikazio eremuaren goitiko bista berria automatizatuta


Zinta garraiatzaile gorriak fabrikazio prozesuan 3 operazioetako bakoitza (torneaketa, fresaketa edo mandrinaketa) bukatzean akastun fabrikazioa egotekotan materiala kanporatzeko zintak dira.

T2, F1 eta M1 makinak kolore berdez irudikatu dira IN-SIGHT LASER profilagailua hor kokaturik dagoela erakusteko.

Elementuen inplementazioa azaltzeko elementu guztien zerrenda burutu da fabrikazio motaren arabera bananduz:

- Torneaketaren automatizazioa:


HS-LJ12A3-4-Z/BX (IT9)



16.irudia. 1. etaparen automatizazioaren krokisa

2.taula: 1.etaparen automatizazio elementuak


Zenbakia	Izena	Kolorea	Elementu komertziala	Aldagaia
1	Zinta garraiatzailea		Gura- 903783 49 [16]	Z1
1	Presio sentsoarea		FSR Arduino Interlink 406	P1
1	Ibiltarte amaierako sentsoarea		HS-LJ12A3-4-Z/BX	IT9
1	Efektu bikoitzeko zilindroa		CP96-C zilindroa [17]	A



17.irudia. 2. etaparen automatizazioaren krokisa

3.taula: 2. etaparen automatizazio elementuak.


Zenbakia	Izena	Kolorea	Elementu komertziala	Aldagaia
2	Zinta garraiatzailea		Gura- 903783 49	Z2
2	Presio sentsorea		FSR Arduino Interlink 406	P2
2	Ibiltarte amaierako sentsorea		HS-LJ12A3-4-Z/BX sentsorea	IT5
2	Efektu bikoitzeko zilindroa		CP96-C zilindroa	B



18.irudia. 3. etaparen automatizazioaren krokisa

4.taula: 3. etaparen automatizazio elementuak.

Zenbakia	Izena	Kolorea	Elementu komertziala	Aldagaia
3	Zinta garraiatzailea		Gura- 903783 49	Z3
3	Presio sentsorea		FSR Arduino Interlink 406	P3
3	Ibiltarte amaierako sentsorea		HS-LJ12A3-4-Z/BX sentsorea	IT3
3	Efektu bikoitzeko zilindroa		CP96-C zilindroa	C



19.irudia. 4. eta 5. etapen automatizazioaren krokisa


5.taula: 4. etaparen automatizazio elementuak.

Zenbakia	Izena	Kolorea	Elementu komertziala	Aldagaia
4	Zinta garraiatzailea		Gura- 903783 49	Z4
4	Presio sentsoarea		FSR Arduino Interlink 406	P4
4	Ibiltarte amaierako sentsoarea		HS-LJ12A3-4-Z/BX sentsoarea	IT2
4	Efektu bikoitzeko zilindroa		CP96-C zilindroa	D
4	Ikusmen artifizialeko sentsoarea		IN-SIGHT LASER PROFILER	ART1

6.taula: 5. etaparen automatizazio elementuak.

Zenbakia	Izena	Kolorea	Elementu komertziala	Aldagaia
5	Zinta garraiatzailea	Black	Gura- 903783 49	Z5
5	Presio sentorea	Yellow	FSR Arduino Interlink 406	P5
5	Ibiltarte amaierako sentorea	Grey	HS-LJ12A3-4-Z/BX sentorea	IT2
5	Efektu bikoitzeko zilindroa	Orange	CP96-C zilindroa	E
5	Ikusmen artifizialeko sentorea	Green	IN-SIGHT LASER PROFILER	ART1


- Fresaketaren automatizazioa:



20.irudia. 6. etaparen automatizazioaren krokisa

7.taula: 6. etaparen automatizazio elementuak.

Zenbakia	Izena	Kolorea	Elementu komertziala	Aldagaia
6	Zinta garraiatzailea	Black	Gura- 903783 49	Z6
6	Presio sentorea	Yellow	FSR Arduino Interlink 406	P6
6	Ibiltarte amaierako sentorea	Grey	HS-LJ12A3-4-Z/BX sentorea	IF2
6	Efektu bikoitzeko zilindroa	Orange	CP96-C zilindroa	F



21.irudia. 7. eta 8. etapen automatizazioaren krokisa
8.taula: 7. etapen automatizazio elementuak.

Zenbakia	Izena	Kolorea	Elementu komertziala	Aldagaia
7	Zinta garraiatzailea	Red	Gura- 903783 49	Z7
7	Presio sentsorea	Yellow	FSR Arduino Interlink 406	P7
7	Ibiltarte amaierako sentsorea	Grey	HS-LJ12A3-4-Z/BX sentsorea	IF1
7	Efektu bikoitzeko zilindroa	Orange	CP96-C zilindroa	G
7	Ikusmen artifizialeko sentsorea	Green	IN-SIGHT LASER PROFILER	ART2


9.taula: 8. etaparen automatizazio elementuak.

Zenbakia	Izena	Kolorea	Elementu komertziala	Aldagaia
8	Zinta garraiatzailea	Black	Gura- 903783 49	Z8
8	Presio sentsoarea	Yellow	FSR Arduino Interlink 406	P8
8	Ibiltarte amaierako sentsoarea	Grey	HS-LJ12A3-4-Z/BX sentsoarea	IF1
8	Efektu bikoitzeko zilindroa	Orange	CP96-C zilindroa	I
8	Ikusmen artifizialeko sentsoarea	Green	IN-SIGHT LASER PROFILER	ART2

- Mandrinaketaren automatizazioa:

HS-LJ12A3-4Z/BX (IM4)

CP96-C (H)




Zinta garraiatzailea (Z9)

22.irudia. 9. etaparen automatizazioaren krokisa

10.taula: 9. etaparen automatizazio elementuak.


Zenbakia	Izena	Kolorea	Elementu komertziala	Aldagaia
9	Zinta garraiatzailea	Black	Gura- 903783 49	Z9
9	Presio sentsoarea	Yellow	FSR Arduino Interlink 406	P9
9	Ibiltarte amaierako sentsoarea	Grey	HS-LJ12A3-4-Z/BX sentsoarea	IM4
9	Efektu bikoitzeko zilindroa	Orange	CP96-C zilindroa	H



23.irudia. 10. etaparen automatizazioaren krokisa

11.taula: 10. etaparen automatizazio elementuak.

Zenbakia	Izena	Kolorea	Elementu komertziala	Aldagaia
10	Zinta garraiatzailea		Gura- 903783 49	Z10
10	Presio sentsorea		FSR Arduino Interlink 406	P10
10	Ibiltarte amaierako sentsorea		HS-LJ12A3-4-Z/BX sentsorea	IM2
10	Efektu bikoitzeko zilindroa		CP96-C zilindroa	J



24.irudia. 11. eta 12. etapen automatizazioaren krokisa

12.taula: 11. etaparen automatizazio elementuak.

Zenbakia	Izena	Kolorea	Elementu komertziala	Aldagaia
11	Zinta garraiatzailea		Gura- 903783 49	Z11
11	Presio sentsorea		FSR Arduino Interlink 406	P11
11	Ibiltarte amaierako sentsorea		HS-LJ12A3-4-Z/BX sentsorea	IM1
11	Efektu bikoitzeko zilindroa		CP96-C zilindroa	K
11	Ikusmen artifizialeko sentsorea		IN-SIGHT LASER PROFILER	ART3

13.taula: 12. etaparen automatizazio elementuak.

Zenbakia	Izena	Kolorea	Elementu komertziala	Aldagaia
12	Zinta garraiatzailea		Gura- 903783 49	Z12
12	Presio sentsorea		FSR Arduino Interlink 406	P12
12	Ibiltarte amaierako sentsorea		HS-LJ12A3-4-Z/BX sentsorea	IM1
12	Zilindro biegonkorra		CP96-C zilindroa	L
12	Ikusmen artifizialeko sentsorea		IN-SIGHT LASER PROFILER	ART3

BESTE ELEMENTUAK

Automatizazioan erabili diren beste elementuen sailkapena diseinu eta neurri zehaztasunak azalduz:

Gura-90378349

14.taula: Gura-90378349 zinta garraiatzailearen diseinu espezifikazioak.

Luzera	2000mm
Zabalera	750mm
Pisua	126.6Kg
Ardatz arteko distantzia	62.5mm



25.irudia. Gura-90378349 zinta garraiatzailea

Zinta garraiatzaileak ez dute motorrik eta langile batek eskuz mugituko ditu dagokion presio sentsoreak materiala detektatzean eta ondoren dagokion Z pultsagailua sakatuko du.

CP96-C zilindroa


15.taula: CP96-C zilindroaren diseinu espezifikazioak.

Diametroa	32-100mm
Hedapen distantzia maximoa	2000mm



26.irudia. CP96-C zilindroa

Efektu bikoitzeko zilindro pneumatikoa bere funtzionamendu orokorra erakusten duen eskema jarraituz kontrolatzen da.



27.irudia. CP96-C zilindroaren funtzionamendu eskema

Eskeman ikusten den moduan funtzionamendu egokirako bi abiadura kontrolagailu, erregulagailu bat, aire iragazki bat eta elektrobalbula bat beharrezko da.

Aktuadore hau kontrolatzeko tailerrak eskuragarri duen aire iturrietako bat erabiliko da eta bere kontrola gauzatzeko elektrobula [18] erabiliko da PLC-tik kontrolatuz. Konexiorako elektrobula 24V-ko korrante zuzenez elikatu behar da eta honetarako elikadura iturri bat erabiliko da.

Produkzio lerroan sentsore eta zinta garraiatzaileen inplementazioa ageri den arren, doikuntza lanean ez da hobekuntzarik inplementatu proiektuaren muntaia eta doitzea mekanikoen esku dagoelako.

Larrialdi sistema produkzio lerroan dago kokatuta eta bere eragingailua erabiliz produkzioa eten daiteke. Produkzioa berriz abian jartzeko etengailua desaktibatu beharko da.

Ezarririk azken neurria soinu alarma bat izan da [19]. Modu honetan hiru mekanizazio prozesuetako bakoitza amaitzean materialak bete beharreko neurriak ez izatekotan bulego nagusikoko arduradunak informazioa azkar jaso dezake.

CPI-42533C-120



28.irudia. CPI-42533C-120 soinu alarma

- Konexioa hiru kable erabiliz burutzen da:
 - Gorria: (6-28) V esparruko korrante zuzeneko tentsio iturri bati konektatzen zaio. Ondorioz, 6V-ko elikadura iturri bat erabili da.
 - Beltza: GND-ra konektatzen da.
 - Urdina: Sarrera digitala da eta PLC-aren irteera digitalera konektatuko da.

16.taula: CPI-42533C-120-ren diseinu espezifikazioak.


Korrontea	11-13mA
Tentsioa	6-28V
Maiztasuna	2,8KHz
Sarrera mota	Korrante zuzena
Lan tenperatura	-30°C ~ 85 °C

PROGRAMAZIOA

